

## Jaioberriak uretan jolasten



Hiru urte arteko haurrak aritzen dira Olaederran ▶ 4

# Elkartasun merkatua antolatu du Laskorainek

**TOLOSA** ▶ Saharako eta Indiako eskoletara bideratuko dute aurten Merkatu Txikian lortutako laguntza

**BILKETA** ▶ Hilaren 26an irekiko da Kultur Etxean; bilketa hasi dute etxe, denda eta enpresetan ▶ 3



## Bizikleta festa arrakastatsua izan zen igandean

**ALEGIA** ▶ Berrogeita hamar bat lagun —guraso eta seme-alaben artean— elkartu ziren igandean Languarre txirrindulari elkarteak antolatutako bizikleta festan. Kaskoa buruan, Alegiako kaleak zeharkatu eta Ikaztegiatiko lehen biribiluneraino joan eta atzera itzuli ziren. Jarraian haurrentzako ginkana egin zuten,

Oriako txirrindulari eskolaren laguntzarekin. Bukieran, parte-hartzaile guztiek opariak jaso zituzten. Antolatzaileak «oso pozik» gelditu ziren «izandako arrakastarekin» eta datorren urtean berriro antolatzeko gogoarekin. Argazkian, bizikleta festako parte-hartzaileak herriko plazan. OLAIA ESKITXABEL ▶ 5

**TOLOSA** ▶

Hegoaldek gogotsu borrokatu zuen, baina esku hutsik itzuli da Navalcarnerotik 9-4 galduta ▶ 2

**IBARRA** ▶

## Areto futbol taldeak 7-2 galdu du Kantabrian

Markagailuak ez du kantxan gertatu zena islatzen ▶ 6

**ARESO** ▶



JAIONE ASTIBIA

## Mikel Olazabal, DV Torneoko finalera

Betelurekin batera jokatu du pilota finala Zarautzen ▶ 7

**IBARRA** ▶

## Giro ona sortu zen bertso afarian

Adin guztietako 60 lagun bildu ziren ▶ 6

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

Emakumezkoen Ohorezko Maila.

Futsi Navalcarnero-Hegoalde Tolosa	9-4
Sailkapena ▶	
1. Femesala Elx	33 puntu
2. Futsi Navalcarnero	29 puntu
3. UCAM Murtzia	25 puntu
4. Foticos Zaragoza	24 puntu
5. Club Teledeportivo	22 puntu
6. Ketall Fuenlabrada	19 puntu
7. Ourense	19 puntu
8. Mostoles	17 puntu
9. Soto del Real	16 puntu
10. Diamante Rioja	12 puntu
11. Gironella	11 puntu
12. Hegoalde Tolosa	10 puntu
13. Arturo Eyries Valladolid	10 puntu
14. Goierri Urretxu	4 puntu
15. Valdetres Meiras	4 puntu
16. Cabanyal Valencia	1 puntu

**1. Maila A.**  
Peñucas-Ibarra 7-2

**1. Maila B.**  
Laskorain-Altamira Bar Txutxi 7-4

**Nesken Liga.**  
Ataun-Tinta Villabona 2-1

**Liga Autonomikoa.**  
Makax-T.Lakuntza 3-1

ESKU PILOTA

ELKARTEEN ARTEKOA

Kadeteen 1. Maila.

Zazpitturri-Aurrera Saiaz 12-22  
(Xabier Telletxea)

Gazteen 1. Maila.

Aurrera Saiaz-Lagunak 22-05  
(Koldo Galarraga)

Gazteen 2. Maila.

Zumaia-Aurrera Saiaz 22-12  
(Beñat Iriarte-Xabier Galarraga)

Nagusien 1. Maila.

Aurrera Saiaz-Goierri 09-22  
(Unai Aspe-Jabi Oteiza)

Nagusien 3. Maila.

Aurrera Saiaz-Murumendi 18-22  
(Igor Aranzabe-Eneko Galarraga)  
Aurrera Saiaz-Intza 22-12  
(Ugaitz Renobales-Aimar Galarraga)  
Oiarpe-Aurrera Saiaz 22-14  
(Xuban Pikabea-Ion Orbegozo)

FUTBOLA

Gorengoen Maila.

Tolosa-Hondarribia 2-1  
Sailkapena ▶

**1. Tolosa 33 puntu**  
2. Touring 28 puntu  
3. Ordizia 28 puntu  
4. UPV/EHU 26 puntu  
5. Hondarribia 24 puntu  
6. Real Union B 24 puntu  
7. Zarautz 21 puntu

8. Aretxabaleta 21 puntu  
9. Mutriku 21 puntu  
10. Aloña Mendi 20 puntu  
11. Pasajes 20 puntu  
12. Orioko 20 puntu  
13. Zestoa 18 puntu  
14. Urola 17 puntu  
15. Anaitasuna 17 puntu  
16. Mondragon 17 puntu  
17. Trintberpe 17 puntu  
18. Beti Gazte 16 puntu  
19. Bergara 12 puntu  
20. Oiartzun 8 puntu

Lurraldeko 1. Maila.

Baztan-Aurrera 2-2  
Irun 1902-Tolosa B 3-1  
Sailkapena ▶

1. Martutene 27 puntu  
2. Allerru 27 puntu  
3. Beti Ona 23 puntu  
4. Irun 1902 23 puntu  
5. Euskalduna 22 puntu  
6. Mariño 20 puntu  
7. Ostadar 18 puntu  
8. Behobia 18 puntu  
9. Lengokoak 18 puntu  
10. Astigarragako 17 puntu  
11. Roteta 16 puntu  
12. Gure Txokoa 14 puntu  
13. Vasconia 13 puntu  
14. Amara Berri 13 puntu  
15. Tolosa B 9 puntu  
16. Ordizia 8 puntu

Lurraldeko 2. Maila.

Lasarte Oriá-Danena 0-1  
Usurbil-Amaroz 3-1

Intxurre (atsedena)  
Sailkapena ▶  
1. Sanpedrotarra 23 puntu  
2. Usurbil 18 puntu  
3. Danena 18 puntu  
4. Lazkao 14 puntu  
5. Inburre 12 puntu  
6. Amaro 12 puntu  
7. Lasarte Oriá 6 puntu

Jubenilen Euskal Liga.

Amorebieta-Tolosa 2-1

Jubenilen 1. Maila.

Intxurre-Ikasberri 6-2  
Beti Gazte-Billabona 1-2

Kadeteen Euskal Liga.

Tolosa-Eibar 2-2

FUTBOL 7

1. Maila.

Zardoya Otis-Ibarra GA 6-2  
La Kabutzia-Lanbroa Dickens 0-0  
Sailkapena ▶

1. Robers 28 puntu  
2. Zibibibo Dance Club 26 puntu  
3. Knauf-Dec. Nuñez 23 puntu  
4. Perku taberna 21 puntu  
5. Bataplan 21 puntu  
6. Easo Motor 18 puntu  
7. Bar Ignacio-Hondarribia 17 puntu  
8. Zardoya Otis 17 puntu  
9. La Kabutzia 13 puntu  
10. Kroms 13 puntu  
11. Callejo Lanperna 11 puntu  
12. Ibarra Gazte Asanblada 10 puntu

13. Lanbroa Dickens 9 puntu  
14. Irish Guinness 8 puntu  
15. Cesar Rueda Seguros 6 puntu  
16. St. Etienne Cafe Bar 2 puntu

2. Maila A.

Encofr. Iguazuri-Bar Shanti Kirolak 3-6  
Sailkapena ▶  
1. Ekin Fisioterapia Zentroa 26 puntu  
2. Bar Shanti Kirolak 25 puntu  
3. Ron Cartavio 23 puntu  
4. Akelenea sagardotegia 23 puntu  
5. Pub Egarrri 23 puntu  
6. Disco Bar Egur 22 puntu  
7. R. Izkina-Pasaia 20 puntu  
8. Taberna Dani 16 puntu  
9. Eibartarra Dance Club 12 puntu  
10. Encofrados Iguazuri 11 puntu  
11. Papeleria Tamayo 11 puntu  
12. Ikena 12 puntu  
13. Fermax Instalaciones GC 8 puntu  
14. Cabo Rojo-Pyxies 8 puntu  
15. In the line 7 puntu  
16. Nin Climatizacion 3 puntu

ZESTA-PUNTA

ELKARTEEN ARTEKOA

Kadeteak.

Zumaia-Beotibar 1 30-09

Jubenilak.

Zumaia-Beotibar 32-35

Nagusiak.

Beotibar 1-Gazteleku 4 35-16  
Zumaia 3-Beotibar 2 21-35

TOLOSA ▶ ARETO FUTBOLA

ERREDAKZIOA

Partida ona jokatu zuen Hegoalde larunbatean. Aurkari gogorra zuen aurrean, Madrillogo Futsi Navalcarnero, sailkapeneko bigarren sailkatua; baina taldea ez zen kokildu, eta joko bikaina egin zuen. Beharbada horregatik eman die min handiagoa porrotak: 9-4 galdu zuten Tolosakoek.

Bi taldeak jokaldi politak eskainiz ekin zioten lehenabiziko zatiari. Lehenengo hiru minutuetan bi gol sartu zituzten madrildarrek, baina tolosarrek burua altxa eta lan egiten jarraitu zuten. «Bakoitzak berea-ri heldu zion eta gol aukera dezente izan genituen bi taldeok. Horieta asko gol izan ziren», azaldu dute Hegoaldeko ordezkariak. 3-4 amaitu zen lehenabiziko zatia. Joko bizia eta azkarra eta bi taldeen arteko oreka izan ziren nagusi.

Motelago ekin zioten bigarren zatiari. Futsi aurreratu egin zen berriro, baina Hegoalde segituan erantzun zuen, eta partida irabaztea ez zela erraza izango erakutsi zien madrildarrei. «Partidako unerik garrantzitsuenak izan ziren minutu haiek, baloia nork lortuko borrokatu bainkinen bi taldeok,

# Gogotsu borrokatuta, baina esku hutsik

Aurkari gogorra izan zuen aurrean Hegoalde, Futsi bigarren sailkatua; joko ona egin arren, 9-4 galdu zuen



Hegoaldekoak jokoan, Berazubini, artxiboko irudi batean. I. GARCIA

eta gol aukera asko ere izan ziren. Baina, zoritxarrez, gauzak ez zitzaizun nahi bezala ateratu, azken hiru minutuak aldapa gora bihurtu baitzirenen». Futsiko Eva Vaguanek lau gol sartu zituen jarraian hiru minututan; Ligako goleatzailearik one-

na da, eta maila handikoa. Maite Argote Hegoaldeko entrenatzaileak Madrillogo jokalararen lana goraiatu zuen, partida amaieran: «Vaguan oso ongi aritu da, eta argi utzi du zergatik dagoen goleatzaile onenaren lehen postuan».

«Porrotatik penaturik» baina, era berean, «egindako lanarekin pozik» agertu zen taldeko ordezkaria: «Min handia ematen du partida gogorra izan, joko ona egin, eta azkeneko hiru minutuetan dena behe-erortzea. Hala ere, emaitza ona ez izan arren, joko aldetik asko hobetu dugu, eta hori oso garrantzitsua da; are gehiago etxetik kanpo jokatu dugula jakinda».

Miriam Pradosen eta Gema Zelaiaeren bajak izan zituen larunbatean Hegoalde: lan kontuengatik ez zuen bidaiatu lehenak, eta Hegoalde txiki taldearen partida zuelako ez zen izan bigarrena.

Datorren asteburuan Ketall Fuenlabrada hartuko du Tolosako taldeak etxean, Berazubini.

FUTSI ▶ 9  
HEGOALDE ▶ 4

**Futsi Navalcarnero.** Raquel Cabello, Patricia Chamorro, Silvia Fernandez, Fabiana Ribeiro, Leticia Sanchez, Eva Vaguan, Clara del Pino, Alejandra Fernandez, Conchi Guines eta Cristina Zamorano. Entrenatzailea: David Cacuero.  
**Hegoalde Tolosa.** Lurdes Zuriarain, Itziar Aldezabal, Isa Barrio, Maider Lopez, Nerea Salazar, Miriam Arana, Edurne Agirrebe eta Amaia Azpilikueta. Entrenatzaileak: Virginia Amilibia eta Maite Argote.  
**Golak.** 1-0: Leticia Sanchezek (02m.); 2-0: Cristina Zamoranok (03m.); 2-1: Maider Lopezek (03m.); 2-2: Nerea Salazarrek (06m.); 3-2: Leticia Sanchezek (11m.); 4-2: Fabiana Ribeirok (16m.); 4-3: Maider Lopezek (18m.); 5-3: Clara del Pinok (30m.); 5-4: Miriam Aranak (32m.); 6-4: Eva Vaguanek (37m.); 7-4: Eva Vaguanek (38m.); 8-4: Eva Vaguanek (38m.); 9-4: Eva Vaguanek (39m.).

EUSKARA ▶

**Euskal Herrian Euskaraz-en jaialdira joateko**

Euskal Herrian Euskaraz-en 25. urtemuga dela-eta Iruñeko Anaitasun larumbatean, hilak 18, ospatuko den jaialdirako autobusak antolatuta ditu Galtzaundi Euskara Taldeak. Izen-ematea arratsaldero, 17:00etatik 21:00etara, Galtzaundiren egoitzan.

INAUTERIAK ▶

**Jai Batzordearen bilera egingo dute gaur arratsaldean**

Jai Batzordeak beste bilera batera deitu du gaurko Inauterien inguruan. Arratsaldean, 19:00etan hasiko da bilkura, Kultur Etxean. Inauterietako karrozetan eta konpartsetan parte hartzeokoak diren guztiak eskatu diete Jai Batzordeko kideek batzar horretara joateko. Izan ere, 2005eko Inauterietako lehia-ketaren nondik norakoak azalduko dituzte bertan.

HEZKUNTZA ▶

**Laskorain ikastolako urteko batzarra, etzi**

Laskorain ikastolako urteko ohiko batzarrera deitu du ostegunean, hilak 16, Usabalgo areto nagusian; 19:30ean hasiko da batzarra. Ikastolako kideek elkarrekin aztertuko dituzte urteko gertakizunak bertan, eta, era berean, datoren urterako asmoak zehaztuko. Halaber, Gestio Batzordeko kide berrien izendapena egingo dute bertan, Laskoraineko ordezkariak esan dutenez. Ikastolako kide guztiak gonbidatu dituzte «ekitaldi garrantzitsu horretara».

MENDIA ▶

**2005eko mendi federatu txartela lortzeko aukera**

Tolosako Alpino Uzturre mendi elkarteak kideek deialdia egin nahi diete eskualdeko mendizale guztiak 2005. urterako mendi federatu txartela atera dezaten. Elkarteak Gudari kalean duen egoitzan bertan eskura daiteke mendi federatu txartela, bihar, 19:30ak eta 21:00ak bitartean.

GIZARTEA ▶

**Elkartasun merkatua: solidarioen hitzordua**

Laskorain ikastolakoek Merkatu Txikia irekiko dute hilaren 26an Kultur Etxean

IRATXE ETXEBESTE

Laskorain ikastolako hezkuntza komunitateak «gure inguruko eta kanpoko giza beharrez jabetzeko, kontzientzia zabaltzeko eta, neurri batean, ekonomikoki laguntzeko asmoarekin», han eta hemen bildutako jantziak, tresnak, altzariak... Merkatu Txikian salgai jartzeko ohitura du azken urteetan. Bederatzigarrenez egingo dute aurtengoan.

Aurrez gelaz gela landutako unitate didaktikoaren ekimenetako bat da Merkatu Txikia. «Gure gazteak baloretan hezteak inguruan ditugun arazo sozialak geletara hurbiltzea eskatzen digu; gaitasun zientifikoetan hezteaz gain, giza baloreak gureganatzea egun irakaskuntzak duen eronka nagusienetakoa bihurtu zaigu. Gazte hauek izango dira ondorengo urteetan gizartearen norabidearen nondik norakoa marraztuko dutenak, eta horretarako, errealtatearen ikuspegi gizatiarra eta soziala barneratu behar dute beraien heziketa prozesuan», diote Laskoraineko arduradunek.

*Hemen euro bat, han milioi bat* lelopean landuko dituzten gaien bitartez Laskoraineko hezkuntza komunitatea osatzen dutenek badakite jakin eguneroko bizimoduak «gauza txiki eta gertukoetan aldatu behar dugula gure jokabidea eta jarrera». Ildo horretatik, ikasle-en balio, jarrera eta portaerak poliki-poliki hobera aldatzen

ahaleginduko direla esan dute Laskorain ikastolako arduradunek bereziki, eta besteak beste, gauzei, ideiei eta pertsonen errespetoa izateak, norbakoaren eta gizartearen giza eskubideak kontuan hartzeak, gatazkak era baketsuan konpontzeko elkarriketa bultzatzeak, gizarte justuagoa, berdinagoa eta solidarioagoa eraikitzeko elkarren arteko ardura eta konpromisoa bultzatzeak, kontsumo arduratsua bultzatzeak, erositakoa berrerabiltzeak eta birziklatzeko ohiturak sendotzeak duten balioa azalduko diete horretarako.

**Aurten, Saharara eta Indiar**

Bi proiektu bultzatu nahi dituzte Ikastolakoek aurten, eta Tolosalako Udaleko Gizarte Zerbitzuaren eta Calcuta ondoan, Ibarra San Bartolome misio taldea eta Tolosaldea Sahararekin Gobernu Kanpoko Eraikundearen laguntza izango dute bide horretan. Hala, Saharako eskolak birgaitzen jarraitzeko proiektuari eta Indiako Ghoga herriko eskoletarako laguntza ekonomikoa lortzekoari eman diote lehentasuna oraingoan.

Ikastolako ordezkari gisa, Kepa Goikoetxea izan da abenduan Saharako zazpi eskoletako proiektuak nola bideratzen ari diren ikusteko. Hemendik aurrera Saharako eskolak birgaitzen jarraitzeko lanak eskoletako zuzendariak bideratu dituzte zuzenean Laskorainekoek, eta zuzendariak hartu-



lazio Merkatu Txikia. L. MONTES

ko dute bere gain konponketak aurrera eramateko ardura, bertiere Aaiungo wulayako gobernadore Omar Mansonen ikuskaritzapean. Azken horrek Tolosaldea Sahararekin elkarteari helaraziko dizkio proiektuaren nondik norakoak.

Bestalde, eta Tolosalako Txotxongilo Jaialdiak aurten Indiarri eman dion garrantzia aintzat hartuta, hango Ghogha herriko eskoletarako laguntza ekonomikoa lortzen saiatuko dira Laskorainekoak. Calcuta ondoan elkarteko eta Ibarra San Bartolome misio taldeko kideak Ikastolan izan dituzte berriki, haien helburuen berri emateko: Indiako Ghogha herriko hezkuntzarako eraikuntza bat egitea da horietako bat. «Hiri hartako jendea oinarriko beharrezan faltan bizi da; bertako langileek, arrantzaileek eta kale garbitzaileek, ez dute eguneko euro bat baino gehiago irabazten». Bi elkarte horietako kideak Indiarri joango dira urtarrilean, proiektuari gainbegirada bat emateko, eta Ikastolako komunitateak lortzen duen diru laguntzaren erdia hangoei bideratuko diete.

Merkatu Txikian soberan geratzen dena Emaus Fundazioari emango diote, bestalde. Aurrerako irauten duen bitartean inork altxariak kentzeko asmorik balu haiek jasoko lituzkete, konpondu, eta salgai jartzeko. 943 45 98 74ra dei daiteke horretarako.

Saharako herrian izandako uholdeengatik aurtengo egoera «gogorragoa» denez, elikagai bilketa ere egingo dute Merkatu Txikiako antolatzaileek, urtero bezala. «Pasta, azukrea, arroza, olio, lekaleak eta atuna biltzen lagunduko diegu», adierazi dute.

**MERKATU TXIKIA ▶**

**EZAUGARRIAK**

**Kultur Etxean.** Hilaren 26tik urtarrilaren 6ra izango da zabalik Tolosalako Kultur Etxean. **Ordutegia.** 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

**BILKETA**

**Bilketa kanpaina.** Hilaren lehen hasi eta urtarrilaren 6a bitarte, etxe, denda, taberna, lantoki, finantza erakunde eta gainerako elkarteetara joko dute antolatzaileek Merkatu Txikirako tresnak biltzeko.

**Non.** Material bilketa honako leku eta orduetan egingo dute: Laskorain ikastolan edo Euskal Herria plazako euskaltegi zaharreko biltegian hilaren 20tik 22ra 18:00etatik 19:00etara; hilaren 22an eta 23an arratsalde Kultur Etxean edo zuzenean, salmenta egunetan bertara eramanez. **Zer biltzen dute?** Jostailuak, jantziak, liburuak, tresnak, dirua, elikagaiak...

**Nola lagundu.** Edonork har dezake parte Merkatu Txikian, berarentzat baliagarri ez diren gauzak antolatzaileei eskainiz, haiek salgai jar ditzaten.

**TELEFONOAK ▶**

**LARRIALDIK**

▶ 112

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- Anoetaledea.** Medikua: 65 23 39
- Asteasu.** Medikua: 69 24 23
- Berastegi-Elduain.** 68 33 61
- Ibarralde.** Osasun etx.: 672411
- Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29
- Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- Lizartza.** Medikua: 68 20 77
- Tolosa.**
  - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
  - ▶ San Esteban: 00 68 00
  - ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
  - ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
  - ▶ DYA: 67 25 36
  - ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
  - ▶ Ertzaintza: 53 88 20
- Villabona-Aiztondo.** Anbulatorioa: 00 69 70
- Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

**GARRIAOK**

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Taxia: 67 04 20
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**EUSKALTEGIAK**

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
- ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
- ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- Gaur.** Morant, R. Zabalarreta 1 (Tolosa). 943 67 38 49.
- Larraia, M.J. Elbarren 95 (Leitza). 112.

**TOLOSALDEKO HITZA**

- Publizitatea.** 661 67 88 18. [tolosaldean\\_public@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info)
- Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33. [tolosa@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosa@tolosaldeko-hitza.info)
- Villabona-Aizt.** 687 41 00 22. [villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info](mailto:villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info)
- Anoetaledea.** 687 41 00 22 [anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info](mailto:anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info)
- Ibarralde.** 687 41 00 32. [ibarralde@tolosaldeko-hitza.info](mailto:ibarralde@tolosaldeko-hitza.info)
- Alegialdea.** 687 41 00 34. [alegialdea@tolosaldeko-hitza.info](mailto:alegialdea@tolosaldeko-hitza.info)
- Leitzalde.** 687 41 01 18. [leitzalde@tolosaldeko-hitza.info](mailto:leitzalde@tolosaldeko-hitza.info)

**iragarki laburrak ▶**

- LANA**
- Sukaldaria.** Tabernarako sukaldaria behar da asteburuetan lan egiteko. 943 69 19 33.
- SALGAI**
- Soinu ekipoa.** Soinu ekipoa osoa salgai. Argibideetarako, deitu: 943 67 48 06 / 943 11 77 38.
- Etxebizitza.** Etxea salgai Tolosalako Alde Zaharrean. 90 m<sup>2</sup>. Partikularra. Telefona: 943 67 62 14.

## ANOETA ▶

Ohiko batzarra  
egingo da bihar  
Ikastolan

Anoetako Ikastolan ohiko batzarra egingo da bihar. Lehenengo deialdia, 19:00etan izango da eta bigarrenoa, 19:30etan. Gurasoei eta Ikastolako langileei dei egiten zaie parte hartzeko.

## ADUNA ▶

Udalaren ohiko  
batzarra aterpea  
eta langileez

Gaur arratsaldean, 20:30ean hasita, Adunako udaletxeako batzar aretoan ohiko batzarra egingo da. Besteak beste, ondorengo gaiak aztertuko dira: Uztartza aterpe-jate-txearen ustiapen adjudikazioa eta Udaleko langileen maila aztertzea.

## IRURA ▶

Loatzoko ikasle  
irurarren  
kontzertua elizan

Eguberrietako ekintzen bitan, ostegunean, arratsaldeko 19:00etan, Loatzoko ikasleek kontzertua eskainiko dute elizan. Aipatzekoa da kontzertu honetako musikari guztiak irurarrak izango direla.

## IRURA ▶

Adiskidetasuna  
hizpide Zaharren  
Biltokian

Irurako Zaharren Biltokian hitzaldia izango da gaur arratsaldean, adiskidetasuna gaiaren inguruan. Hitzaldia 17:00etan hasiko da eta ordubete iraungo du.

## VILLABONA ▶ IKASTAROAK

## Urarekin gozatzeko

Olaederra kiroldegiko igerileku txikian hiru urte bitarteko haurrek gurasoekin batera ikastaroak egiten dituzte uretan egoten ohitzeko



Urperatzeetan arnasa gordetzen erakusten zaie haurrei. HITZA



Jolasa da ikastaroaren ardatz nagusia. HITZA



Haur talde bat hankak astintzen igerilekuaren ertzean eserita. HITZA

IMANOL GARCIA

L arunbatero eta igandero, goizetan, Olaederra kiroldegiko igerileku txikian ezohiko giroa izaten da. Haur txikiak beren gurasoekin jolasen aritzen dira, denen gozamenarako: haurtxoen igeriketa izeneko ikastaroan ari dira. «Ez dira zehazki igeriketako klaseak», azaltzen du Paula Lopez irakasleak. «Lau urte inguru egin arte ez dute gaitasunik igerian egiteko: ezin dute koordinatu arnasa hartzea eta besoak eta hankak mugitzea».

Ikastaroaren helburua uretan egoten ohitzea da. «Guraso eta haurren arteko ariketa ludiakoa da batez ere. Lurrean egin ez daitezkeen gauzak egitea ahalbidertzen dizu urak. Hurreman afektiboak lantzen dira eta bere psikomotrizitatea ere garatzen da. Beti esaten dut igerilekua ondo etortzen zaiela haurrei eta gurasoei», dio Lopezek.

Sei hilabetetik hiru urte bitarteko haurrak aritzen dira ikastaro honetan, ordu erdiko saioetan. «Txikiagoentzat denbora gehiegi izango litzateke ur barruan egotea eta, bestalde, sei hilabetetik aurrera da adierazitako edadea ariketak egiten hasteko». Eskualdean Olaederran bakarrik egiten da horrelako ikastaroa. Igerileku txikiak tenperatura sistema propioa izan behar du. Izan ere, 30 edo 31 gradutaraino igotzen da normalean 27 gradutan izaten den tenperatura.

Ikastaroak oso dinamikoak izaten dira eta jolasaren bitartez eta asko errepikatuz burutzen dira. «Askok lantzen dugu bizkarrezka egitea, postura dortsala lantzeko. Bestade, beratek uretan bakarrik maneia-



Paula Lopez. I. GARCIA

tzen erakusten diogu: uretara salto egiten eta gero bakarrik ateratzen, bai ertzari eldudoz eskaileretatik igotzen», dio irakasleak. «Askok lantzen da ere ur barruan sartzea eta arnasa kontrolatzea».

Villabonan bizi diren Patricia Amigo eta Karlos Galarragak bere alaba June eraman zuten ikastarora. «Betidanik igeriketan aritu naiz», dio Patricia Amigok, «eta nahi duen haurrak lehenbailehen kontaktua izatea urarekin. Hasieratik ikusi genuen haurrari asko gustatzen zitzaioela eta asko errelaxatzen zela. Umeez pila bat gozatzeko dute eta uste dut bere garapenarako ona dela».

Agurtzane Idigoras andoaindarrak bere alaba Maddirekin joaten da astebururo. «Gurasok etxea daukate igerilekuarekin Nafarroan eta nahiko bihurria denez, behintzat uretan mantentzeko eta beldurra kentzeko ekartzen dut», dio.

Ikastaroan abonatuak preferentzia dute izena emateko eta gaur da horretarako azken eguna. Bihartik aurrera edozeinek eman dezake izena.

## iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.: 616 93 17 88



**Villabona.** 90 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza eraiki berria salgai. Egongela, sukaldia, 3 logela eta 2 bainugela. Garajea aukeran. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Villabona.** 70 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, bi logelarekin. Erabat berritua. 32.640.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Alkiza.** Villa individuala lursailarekin. Kapriboz. Informazio pertsonala. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Ibarra.** 69 m<sup>2</sup> eta trasteleku duen etxe eraiki berria. Laugarren pisua. Igoailua. Egongela, sukaldia eta bi logela. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Ibarra.** 90 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai; egongela, sukaldia, bi logela, jantzigela eta bi bainugela. Kanpoaldera. 32.500.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Irura.** Etxebizitza eraiki berria. Egongela, sukaldia, bi logela eta bainugela. Terraza eta garajea. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Ordizia.** 50m<sup>2</sup>-ko etxebizitza polita salgai. 2 logela, berrikuntza egin berria. Estreinatzeko. 25.000.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Ordizia.** 80 m<sup>2</sup> inguruko etxebizitza salgai. Hiru logela. Berritua, altzariz

hornitua. Igoailua. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Tolosa.** 85 m<sup>2</sup>-ko etxea; hiru logela. Berrituko. Igoailua. 36.000.000 pezeta negoziagarriak. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Tolosa.** Foru Etorbidean 110 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza eta 40 m<sup>2</sup>-ko terraza. Trasteleku; igogailua. Bizitzera sartzeko prest. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Tolosa.** Euskal Herria plaza. Azkeneko pisua, aukera. Eraikina zaharberritzen. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Zizurkil.** 80 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai. 3

logela. Erdi berritua. 35.000.000 pezeta. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Zizurkil.** 61 m<sup>2</sup>-ko eta 8 m<sup>2</sup>-ko trasteroa duen pisu altua. Egongela, sukaldia, 2 logela eta bainugela. Guztiz berritua. Kanpoaldera. Altzariekin. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Zizurkil.** 90 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza polita. 4 logela. Berritua. Kanpoaldera. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Behar dira.** Eskaera handiagatik: landa eta hirigintza lursailak, etxebizitzak, villak, baserriak... salgai edo alokairuan. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56

IKAZTEGIETA ▶

**Mendekotasuna duten pertsonen zaintza hizpide**

*Mendekotasuna duten pertsonak nola zaindu* hitzaldia izango da bihar Kiroldegian. Bertan, ezintasuna duten pertsonak, adinekoak... zaintzeko gomendioak luzatuko dituzte, besteak beste. Hitzaldia, kiroldegian izango da eta 16:30ean hasiko da.

ALEGIA ▶

**Jendetsua, Pirritx eta Porrotxen ikuskizun berria**

Arrakastatsua izan zen pasa den ostiralean, abenduaren 10ean, Alegiko Udalak eta Galtzaundi Euskara Taldeak elkarlanean antolaturiko emanaldia; Pirritx eta Porrotx pailazoak *Patata patata* ikuskizun berria eskaini zuten. 227 lagun bildu ziren.



Pirritx eta Porrotx pailazoak ikuskizun berrian. GALTZAUNDI EUSKARA TALDEA

ALEGIA ▶

**'El abrazo partido' filma Gaztetxean**

Daniel Burmanek zuzendutako *El abrazo partido* filma izango da ikusgai gaur Gaztetxean. Ariel gaztea protagonistatzat hartuta Argentinan egun dagoen egoera gertuagotik egutzeko aukera eskaintzen du filmak. 21:30ean hasiko da.

ALEGIA ▶ KIROLA

**Jende ugari bildu zen bizikleta festan**

Ikaztegiatarainoko bidea egin zuten; 50 lagunek hartu zuten parte

OLAIA ESKITXABEL

Jende ugari bildu zen herriko plazan Languarre txirrindulari elkarteak antolatutako bizikleta martxa parte hartzeko. 50 lagun inguruk hartu zuen parte bizikleta festan.

Kaskoa buruan Alegiako kaleak zeharkatu zituzten haurrek zein gurasoek; Oriako txirrindulari taldeko kideak izan zituzten laguntzaile.

Ondoren, Ikaztegiataraino joan eta berriro herrirako bidea egin zuten, Kalebeheratik barrena.

Bizikleta martxa amaitu bezain laister, eta «haurrak ez

hozteko», ginkana egiteari ekin zioten.

Ginkanan Oriako taldeko txirrindulariek azalpenak eman zizkieten gaztetxoei.

Parte-hartzaile guztiek opariak jaso zituzten ginkana amaitzerakoan.

Languarre elkarteko kideak «oso pozik» agertu dira deialdiak «izandako arrakasta ikusita: «Iaz jende asko bildu zen eta aurten gehiago; ginkana egiten den bigarren urtea da eta jendearen gustukoa dela ikusita, berriro ere datorren urtean antolatzeko asmoz», agertu dira Languarreko txirrindulari elkarteko kideak.



**Bizikleta martxa.** Herriko plazatik abiatu zen Languarre antolatutako bizikleta martxa; txikiak ez ziklari gurasoek ere hartu zuten parte. Guztira, 50 lagun inguruk hartu zuten parte. O.ESKITXABEL



**Ginkana.** Bizikletaren gainean oztipoak gaintuz, erraz egin zuten ginkanako ibilbidea gaztetxoei. TXARLI GESTEIRA



**Ilarak.** Bizikleta martxa amaitu bezain laister, ginkanari ekin zioten; ginkana hasteko gogoz bata bestearen ondoan, ilara luzea osatuz, jarri ziren gaztetxoak. PATXI RENOBALDES

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

# Kantxan gertatutakoa ez du islatzen 7-2 markagailuak

Santanderreko Peñucasen aurka galdu zuen Ibarrek; joko ona egin zuten ibartarrek, batez ere lehen zatian

ERREDAKZIOA

Ibarrek 7-2 galdu zuen Santanderren Peñucasen aurka, baina markagailu horrek ez du kantxan gertatu zena ondo islatzen, ibartarrek bigarren zatia oso aurreratua zegoenean galdu zutelako partidua, eta bere akatsengatik. Cesar Roca entrenatzaileak berak esan zuen amaieran Ibarrek galdu zuela partidua eta ez Peñucasek irabazi.

Une hori iritsi arte ibartarrek partidu ona ari ziren egiten, aurkariak baino hobek ziren eta bakarrik golak sartzea falta zitzaizkien.

Ibarra dominatzen hasi zen partidua. Gol aukera argiak sortu zituen, baina baloia atean sartu gabe. Etxeko atezainak izan zuen horren ardurua handia, sareetara zihoan baloia hiru aldiz atera zuelako. Beste bietan baloia zutoina jo zuen. 13. minutuan, kantabriarrek beste areara iritsi ziren lehen aukeran sartu zuten, ondo lotutako jokaldi batean. Beste partidu batzuetan ere gertatu izan zaie hori ibartarrei. Hala ere Ibarrek dominatzen jarraitu zuen eta etxekoak gaizki ari ziren pasatzen, sei minutu falta zirenean bost falta izatera iritsiz.

Atsedendira minutu bat falta zenean egin zuten seigarren falta eta penalti bikoitza Unai Labakak aprobetxatu zuen berdinketa lortzeko. Hala ere emaitza hau ez zen bidezkoa, ibartarrek hiruzpalau goleko alde merezi zutelako. Peñucasen entrenatzaileak be-



Ibarra zorte txarra ari da izaten azkenaldian. I.TERRADILLOS

rak onartu zuen hau partidua- ren amaieran.

## Zoritxarra bigarren zatian

Bigarren zatia agintzen hasi zuen Ibarrek, baina kantabriarrek aurreratu ziren berriro markagailuan, 3. minutuan kontraeraso bat aprobetxatuz. Hala ere Pradosek minutu bat beranduago lortu zuen berdinketa falta zuzen batez. Zoritxarra dute Ibarraek eta segundor batzuk beranduago jaurtiketa gurutzatu batek Zabalo ustekabeen harrapatu eta Peñucas 3-2 aurreratu zen. 21. minutuan beste gol bat sartu zuten etxekoek, gol ederra, oso txalotua, gutxitan ikusia areto futboleant: zelai erditik erdiraketa egin zuten diagonalean

eta atzetik zetorren jokalaritatek burukada ederra eman zion baloia obus gisa sartuz. Hor hautsi zen partidua, Ibarra aurrera joan zen, atzean hutsu-neak utziz, eta Peñucasek aprobetxatu zuen beste hiru gol sartzeko kontraerasoetan.

Ibarrako espedizioa goibel itzuli zen Kantabrietatik emaitzarenengatik, ez jokoarengatik, orokorrean ona eta lehen zatian aparta izan zelako.

## Jubenilek, atsedena

Jubenilen taldeak atsedena izen du asteburu honetan. Hala ere lidergoan jarraitzen dute sailkapenean orain arteko lortutako emaitzei esker. Handiek baino egoera hobea dute Lauburuko gazteek.



## Giro ederra bertso afarian

IBARRA ▶ Ostiralean 60 lagun inguru bildu ziren Gaztetxeko bertso afarian. Saio polita eta alaia izan zen eta Mafiukorta eta Peñagarikanoz aparte, Joxe Ramon Aldasoro *Peskateroa* ere izan zen bere txisteekin giroa jarriaz —argazkian, ondoan Peñagarikano duela—. Adin guztietako jendea bildu zen, eta ekitaldiaren helburuak «beteta» geratzen dira Gaztetxeko ordezkarien esanetan. Orain hurrengo urteko afarira arte itxaron beharko dute. Gaur beste ekitaldi bat izango da 11. urtemugako Kultur Astearen barruan: *Alpeak 2004* diaporama eskainiko dute herriko mendizaleek 19:00etan Gaztetxean bertan.

IBARRAKOGAZTETXEA.NET



## Martxaundi gauan jendetsua

BERASTEGI ▶ Jende asko bildu zen ostiral gauean Berastegiko Urepel elkartearen egin zen Martxaundi gauan. Eskualdeko Ezein musika taldea izan zen gauaren protagonista eta giro ona jartzea lortu zuen. Elkarrekin berak eta Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta zuten ekitaldia. GALTZAUNDI

hitza

# txokoa

## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **KAPRITXO**k oparitutako arropa eta osagaiak zozketatuko ditugu

# KAPRITXO

Landabeikoa z/g • LEITZA  
Tel.: 948 51 09 94



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

ARESO ▶ KIROLA

# Olazabal eta Betelu, DV-ko finalera doaz

## Hurrengo igandean zortzi jokatu dute Zarautzeko Aritzbatalden

JAIONE ASTIBIA

Larunbatean jokatu zen DV pilota torneoko azken partidurako falta zen bikotea erabakitze-ko, bigarren finalerdiko partidua Olazabal-Betelu eta Apezetxea-Merino artean eta lehendabiziko bikoteak irabazi zuten, 22 eta 11koarekin. Beraz, Mikel Olazabal aresoarra hantxe izanen da Zarautzen, Patxi Betelu Aldatzko lagunarekin batera.

Atzo Olazabalek berak HITZARI adierazi zionez, «espero baino errazaxeago irabazi dugu partidua. 4-0, hurrena 6-2, gal- tzen hasi ginen, baina gero buelta eman eta erabat aurre- tiki ibili ginen, bukatu arte», zio- en. Hasieran aurkariek pilota oso bizia ateratu omen zuten eta kosta egin omen zitzaizen egok- itzea. Baina pixkanaka ohitu eta bere horrekin jarraitu omen zuten lanean.

Batez ere atzera jokatu omen zuten hauek, Merino nekatua- razia eta «tantoa bukatzeko au- kera izan genuenean, beti ere ziurtasunez jokatu eta burua- rekin, horixe egin genuen», erantsi zuten pilotari gazteak.

Beteluko partidu osoan zehar lan ikaragarria egin zuten, atze- ko koadroetan jaun eta jabe

zela erakutsiz eta Apezetxeari aurrean jokorik egiteko auke- rak kenduz.

Berrogeita hamahiru minutu iraun zituen partiduan, Olaza- balek 5 tanto egin zituen sake- tik, Apezetxeak 2 egin zituen bitartean. Horrela, beraz, 22 eta 11ko aldeko markagailua- rekin DVko azken partidurako txartela eskuratu zuten Olaza- balek eta Beteluek.

Final hori Zarautzeko Aritzba- talde pilotalekuan jokatu dute, Urdaniz eta Diaz de Ultzu- rrunek osatutako bikotearen aurka, laurak ere naparrak dira, hilaren 26an, 11:00etan.

«Finaleran pilotari txarrak ez dago», adierazi zuten Olazaba- lek, azken partiduko arerioetaz galdetuta: «Horreiraino iritsi bada, lana egin duen seinale izango da». Baina partiduari dagokionez, zail ikusten du partidu ona ateratzea, «finaler- ta eta, oso urduri jokatzeko da orokorrean, eta joko polita egi- tea zaila izaten da», argitu zuten, «eta behin horrelako mailetan gehigo. Elgetakoare- kin batera, afizionatuetan txap- elketa hau garrantzitsueneta- koa baita», erantsi. Edozein moduz, «buruz, seguru eta se- rio jokatzeko saiaturako gara», adierazi zuten finalekoaz.

ARESO ▶ KULTURA



Hantxe prestatutako ohol-tza gainean aritu ziren kantari, han bildu ziren entzuleen laguntza eta txaloak jasoz. J. ASTIBIA

## Itzalak taldea itzala hartuz ari da lanean

### Pake Toki entzule mordoska bildu eta kontzertu atsegina eskaini dute

J. ASTIBIA

Ostiral gauean, Itzalak taldea entzuteko aukera izan zuten Pake Toki elkartera bildu zire- nek, hirurogeita hamar bat la- gun, adin guztietakoak eta kanpotik etorritakoak ere bai, tartean eskaini zituzten zen- bait abestiren egilea.

Hantxe bertan prestatutako eszenatoki tikiaren gainean aritu ziren lanean taldeko hiru kideak, eta aretoak berak iru- dikatzeko berotasun eta

gertutasuna ere nabaria izan zuten kantari eta entzuleentzat.

Adi-adi jarraitu zuten emana- ldia bertan bildutakoek. Kantarien ahotsen osagarritasuna behin eta berriz frogatu- zuten, beraiek oso gustuko dituzten euskal kantuen bertsi- o propioak egin zituzten eta be- raiek sortutako kantu berriak ere abestu zituzten. *Bousa, Ez galdetu* edota *Maldan behera* modukoekin euskal kantugin- tza jorratuz, kantuzalatasuna suspertzea dute helburu.

LEITZA ▶

## Sailkapenean bigarren dago Aurrera, itzulia bukatuta

### Elizondotik puntu batekin etorri da Baztanen aurka 2-2ko emaitza egin ondoren

J. ASTIBIA

Larunbatean jokatu zuten Aurrerak ligako lehen itzuli- ko azkeneko partidua eta bi- nako markagailuarekin bu- katu zuten Elizondon, Bazta- nen aurkakoa.

Aurrerak, partidua hasi eta 2. minuturako sartua zuten lehendabiziko gola, Antolinen eskutik (bere aurreneko- era). Bigarrena, berriz, 2. zatian ongi sartu arte ez zen etorri, Arangoarena. Partidu- ko ezaugarri nabarmen- tzekotan, jokoaren gogortasuna nabarmendu zuten talde- tik. «Jokalariek ubelduak dituzte nonahi han jaso zituz- ten ostikadek eraginda», zio- ten. Epaileak ez omen zuten joko gogor hori bukarazten jakindu.

Baina, kontuak kontu, den- boraldiaren erdia egin dute dagoeneko eta bigarren itzulia hasterako, sailkapene- an goiko postuetan daude leitzarrak, bigarren, Altsasu eta Baztan bera ere hortxe dabilzelarik. Taldeko lau le- hendabiziotan geldituz gero, igoyerako ligaskan parte hartzeko atek irekita izanen litzuke: «Horrela jarraitu, ahal bada hobetu eta lortzea nahi genuke», zioten.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Faxa: 943 65 09 44  
e-maila: ernio@inmoernio.com  
www.inmoernio.com

**Alegia.** San Joan kalean 161 m2ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.

**Anoeta.** 60 m2. Logela, egongela, sukaldea, bainugela.  
Berokuntzarekin. 192.325 euro.

**Anoeta.** Iturburu. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela.  
Berokuntzarekin.

**Asteasu.** Eraikuntza berriko ebea salgai. 4 solairurekin. Jardina eta terrazarekin. Oso egoera onean.

**Berrobi.** 2 logelako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 euro.

**Berrobi.** Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisua, trasteleku eta garaxearekin.

**Ibarra.** Euskal Herria kalearen hasieran garaxe ibxia salgai.

**Ibarra.** Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

**Ikaztegieta.** Eraikuntza berriko etxe

abikia salgai. 270.455 euro.

**Irura.** Borda ikusgarria, ikusteko modukoa!!.

**Legorreta.** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berokuntza eta trastelekuarekin. 142.440 euro.

**Ordizia.** Berritutako etxebizitza merkea salgai.

**Tolosa.** Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 142.440 eurotik aurrera.

**Tolosa.** Santa Klara. 4 logela. Berokuntza. Igogailua.

**Bizitzera** sartzeko moduan.

**Tolosa.** Santa Klara. 2 eta 3 logelako pisuak salgai, sukalde, egongela eta bainugelarekin. Berokuntza. 167.090 eurotik aurrera.

**Tolosa.** Larramendi. Orain dela gutxi eraikuntza. 2 logela, sukaldea, egongela eta trasteleku.

**Berokuntza.** Ezin hobeto.

**Tolosa.** Amaro auzoan oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garaxe aukeran.

**Tolosa.** Trinkete. 3 logela eta bi bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto!!.

**Tolosa.** Foruen Etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikustekoa !!!

**Tolosa.** Erdialdean azkeneko pisua terraza ederrarekin.

**Aukera paregabea !!!!**

**Tolosa.** Iurre. 3 logelako pisua, ganbar eta garaxe aukeran.

**Tolosa.** Iurre. Garaje ibxia salgai.

**Tolosa.** Lurrarrendi ibiltokia. 4 logelako etxe abikia.

**Tolosa.** Iurre inguruan. Guztiz berritutako 2 logelako etxebizitza.

**Tolosa.** Belate. 3 logela eta 2 bainugela. Berritua.

**Tolosa.** Erdialdean. 130 m2-ko etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua). Estreinatze, guztiz berritua izan ondoren.

**Tolosa.** Emeterio Arrese. 110 m2. 3 logela gehi 2 bainugela. Garajea dauka.

**Villabona.** Etxeondo. Pisua ganbara eta garaje itxiarekin.

**Villabona.** Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.

**Villabona.** Kale Berrian. Eraikuntza berriko etxe salgai. Garaje bikoitza ibxia aukeran.

**Villabona.** Larrea. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

**Villabona.** Oriamendi. 3 logela, egongela eta sukaldea.

210.355 euro.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko abenduaren 14a, asteartea ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kuartasaketa, Adura, Albitur, Alegu, Alkiza, Alzo, Amerleña,  
Aranda, Balañan, Belauntza, Berastegi, Etxain, Herrialde, Ibarra, Inza,  
Lantzi, Leizorri, Luartzi, Omeñaca, Omeñaca, Tolosa, Villatorrada, Zuzaldi  
besteriak: Leizaldekoko Euskara Batzordea

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jaurjaritza  
Kultura Salla

FORU JAURJARITZA  
KULTURA SALLA

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena **12** hotzena **10**

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

**943 30 43 46**

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Alto.** Zure finantza erakundearekin eragiketak egin mintegia. KZgunean 08:00etatik 20:00etara.

**Ibarra.** Merkatu Txikia. 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:30era, Parrokiako lokaletan.

**Ibarra.** Herriko mendizaleek Alpeak 2004 diaporama eskainiko dute Gaztetxean 19:00etan, Kultur Astean.

**Ibarra.** Zure negozioaren webgunea Interneten publiku ezazu ikastaroa 18:00etatik 20:00etara KZgunean.

**Tolosa.** Laskorain Ikastolan Baxilegero ikasketak 1999tik 2003ra bukatu zituzten ikasleen tituluak Orixo Institutuan jaso daitezke.

**Tolosa.** Haur Danborradan kantinerak aurkeztu nahi dituzten elkarteek argazkiak eraman behar dituzte Aiz Orratz-Veleta elkartera.

**Tolosa.** Alpino Uzturre elkarterearen ibilaldia iganderako: Etxegarate-Lizarrusti. Mendiak: Areatza (983m.), Intxusburu (943m.) eta Txagadigorri (936m.). Iraupena: 4,30 ordu. Irteera, 08:00etan, Pablo Gorosabeletik.

Ondoren, lagun arteko bazkaria. Izen-ematea elkartean (943 65 27 89).

**Tolosa.** Tolosa CFko bazkideen urteko batzarra izango da Kultur Etxean 19:30ean 1. deialdian eta 20:00etan 2. deialdian. Gaiak: kuoten onarpena, lehendakari berriaren aukeraketa, instalakuntzen etorkizuna, galderak...

### ERAKUSKETAK

**Hernialde.** Luis Laskurain. Koadroak Ostatuan.

**Tolosa.** Txitxi Orbegozoren koadroak Lanbroan.

**Tolosa.** Anselmo Elizalde. Fronton kafetegian.

**Tolosa.** Rufino de Tororen koadroak Sorron dendan.

**Villabona.** Maxola tabernan, Jone Telleriaren lanak.

### ZINEMA

**Alegia.** El abrazo partido filma. Gaztetxean, zinekлубean, 21:30ean.

**Tolosa.** Shall we dance? (¿Bailamos?). Leidorren 19:30ean eta 22:30ean (Ikuslearen eguna).



Aranzadik utzitako irudietan oinarritu dira marrazkiak egiteko. J.SAIZAR



Paleolito garaiko marrazkiak 1969an aurkitu zituzten. J.SAIZAR

# Ekainen kopia, Tolosan

**TOLOSA** ▶ Zestoako kobazuloko marrazkiak Laier tabernan margotu dituzte; Paleolito garaiko marrazkiak 1969an aurkitu zituen Aranzadi zientzia elkarteak



Zaldiak eta kobazulok bestelako animaliak ikus daitezke Laier tabernan. J.SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

**E**z Itziarren, ez Zestoan. Azkenean Tolosak aurre hartu eta Ekaingo kobazuloaren kopia bertan izango da. Atzotik ikus daitezke Laier tabernan Ekaingo zaldiak, bisonteak, basahuntzak, oreinak, hartzak eta izokina.

«Ohiko bezero batzuen artean sortu zen gaia, erdi brome-tan. Azkenean taberna marrazki horiekin hornitzea erabaki genuen», azaldu dio HITZARI Mikel Zubiria Laier tabernakoak. Aranzadi zientzia elkartearekin harremanetan jarri eta Ekain kobazuloko marrazkiak lortu zituzten eta Iñaki Azkarate izan da margotu dituen artista. Atzotik ikus daitezke bertan eta datorren astean gehiago margotuko dituzte.

Paleolito garaiko marrazki hauek 1969an aurkitu zituzten eta sei urtez Jose Miguel Barandiaranek eta Jesus Altunak ikertu zituzten. Orain kopia ikusteko aukera daukagu herrian. Erraza dute Laierrren Inauterietako moztorra.

## ZORION AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**

June Agirre Tolosa

(Tolosa). Gaur 5 urte. Zorionak etzekoen partetik.



**URTE ASKOAN**

Amaïur (Belauntza).

Gaur 8 urte. Eguzki, Manu eta Itziarren partetik.



**URTE ASKOAN**

Eñaut Etxenagusia Arizeta.

Gaur urtebete!!! Zorionak eta muxu handi bat.



**URTE ASKOAN**

Joxepa Zubelzu (Ibarra).

Gaur 78 urte. Asko maite zaitugunon partetik.

**HITZA, zorion agurren tartea**

Urtebetelzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, elorri:

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.  
Mila esker!